

## EDITORIALA

### Jokin Apalategi, *Uztaro* aldizkariaren zuzendaria

62. zenbaki honetan bost artikulu aurkituko dituzu. Gai arras desberdinak jorrazten dira. Eta hurbiltasunaren aldetik, gure espazioari so, alegia, bertan itsatsitako gertakizunetatik bezala dimentsio unibertsalagoz emandakoetatik eraikitako ikerketa esanguratsuak osatzen dira. Izan ere, giza eta gizarte-zientzien neurrian aritzeak, beti begirada zorrotzez, presentean ukitzen gaituena eta etorkizunean ukitu gaitzakeena aztertzeraz bultzatzen gaitu. Eta horrela ari garela egiaztatzeak gure aldizkariaren sortze-arrazoietan konfirmaturik sentiarazten gaitu.

Artikulu bakoitzari dagokiona zehatzago eskainiz, banan-banan aurkezten saiatuko gara. Arte Ederretatik datorkigun «XIX. mendeko paper gaineko argazki koloreztatuak» artikulua, arte-munduarentzat hainbat aldaketa suposatu zituen argazkigintzaren sorrera gorabeheratsuak deskribatzera dator. Lehen argazki-prozesua, zilar-xafla batean finkatutako irudia, alegia, 1839ko Dagerrotipoa izan zen. Urte berean, Talbot-en paper gainean ekoizteko prozesua plazaratu zen. Berritzaile horien artean ere, Henry Collen miniatura-margolaria eta Victoria erreginararen irakaslea, lehen kalotipista profesionala bilakatu zen. XIX. mende horretan jarraituz, esan behar da, arkatzen erabilera oso arrunta ez bazen ere, laster ikatzak, *crayonak* eta olioak agertu zirela. Hala ere, koloretako argazkiak mende erdi bat geroago helduko ziren. Bien bitartean, ordea, argazki koloreztatuek gero eta interes handiagoa piztu zuten. Profesional askok beren burua artista-argazkilari gisa iragartzen zuten. Arazoa, koloreztatutako argazkien kontserbazioak plazaratu zuen. Gainera, koloreztatutako argazkiak, maiz, argazki moduan identifikatzea ia ezinezko gertatzen da. Balorazioetara igarotzen bagara, onartu behar dugu XIX. mendean egindako argazki koloreztatuek beren aipamena eta lekua merezi dutela argazkigintzaren historian. Hensch senar-emazteek gai hau inork baino hobeto aztertu izan dute. 1880ko eta 1890eko hamarkadetan, askotan, jadanik eginda zeuden argazkiei berriz argazkia atera, handitu eta gero koloreztatu egiten zituzten bizitasun handiagoa emateko. Argazkiek artista askoren lana erraztu eta merkatu zuten, baina aldi berean, benetako artistek argazkigintza euren profesiorako mehatxutzat hartu zuten. Garbi dago, bada, XX. mendean koloretako argazkiak agertu arte, argazkiak, jatorriz, zuri-beltzak zirela. Hori bai, argazkiak euskarri askoren gainean ekoitzi izan dira: metal- eta beira-xaflen gainean, paperean, baina bolia, portzelana eta oihala (mihisea edo beste oihal batzuk) ere erabili ziren horretarako. Historikoki jarraituriko ibilbidea honela izendatzen da. 1840an kopia gatzatuak ekoiztearekin batera argazkiak koloreztatzen hasi ziren. 1880ko hamarkadan gelatina-paperak heldu zirenean, albumina-kopiak desagertzen hasi ziren. XX. mendearen lehen erdialdean, posta-txartelak koloreztatzea oso arrunta bihurtu zen. Koloreztatze-metodoak 1940 arte irudi monokromoaren gainetik erabili ziren. Bestalde, koloreztatzea eta ukitzea bereizi behar dira. Argazki baten ukitzea modu zehatz eta mugatuan egiten den hobekuntza, zuzenketa edo aldaketa besterik ez da. Aldiz, argazki bat koloreztatzea, argazki bat kolorez hornitzeari deritzo. Argazkigintzaren lehen garaietan ohikoa zen kolorezko ukituak ematea eta akatsak zuzentzea. Bezeroen jarrera oso ezberdina zen ukitu eta koloreztatzearen aurrean. Garaiko

artista batek pintatzeak lan beraren ospea igo eta ziurtatu egiten zuen. Askotan koloreztatze-lana miniaturagileek egiten zuten. Argazkiak koloreztatzeak hainbat helburu zituen: errealoagoak ematea, iraunkorragoak bihurtzea, zuzentzea eta pintura-lanak gauzatzea. Erretratuak egitean, artisten lana beharrezkoa ikusten zuten askok, lan bakar eta errepikaezin bihurtuz. Hala ere, olio erabiltzen zenean, helburua ez zen argazkiaren iraupena ziurtatzea, ezta hobetzea ere, arte-objektu berria sortzea baizik. Bestalde, argazkiak handitzeak arazo batzuk zekartzen: modeloaren eta prozesuaren akatsak agerian geratzen zirela, alegia. «*Overpainter*» hitzak/terminoak gainera margotzen duena adierazten duela eta, hitz zabalago bat aukeratzeko da nahasketarik egon ez dadin: koloreztatzaile, hain zuten. Hiru taldetan bana daitezke: argazkilariak izan zitezkeen, argazkilarien laguntzaileak, baina bereziki soldatapeko artistak izaten ziren. Klase altuko kideak irudikatzen zituztela ikusita, jarduera horrek prestigioa zeukala pentsa dezakegu. Baina, Baker-ek, 1871n, ez zituen benetako artistatza hartzen, argazki-koloreztatzaileek marrazketako ikasketarik gabe, pintzelak eta *crayon*ak erabiltzen baino ez zekitelako. Miniaturagile askok zuzenean erretratuak argazkien gainean margotzen zituzten. Aipagarria da emakumeek ere argazkiak koloreztatzen zituztela. Adierazi behar da, orobat, argazki-prozesu guztiak margo zitezkeela eta formatu guztiak erabil zitezkeela. Coe-ren arabera, azala matea zuten kopia gatzatuek oso ondo eta erraz hartzen zuten kolorea; paperak, aldiz, kolorea xurgatu eta atxiki egiten zuen tartean inolako geruzaren beharrik gabe. Hasluck-ek 1905ean zioen ezen ikatz, bromuro, platinotipo, albumina eta paper gatzatuaren kopia arruntak egokienak zirela koloreztatzeko, POP gelatina-kopia distiratsuak, aldiz, ez. Argazki-kopiak gehienetan tamainaren arabera sailkatzen dira, zenbait kasutan prozesuaren arabera egiten bada ere. Bitxien munduan sartuz gero, konturatuko gara brotze (orraz/paparreko), medailoi eta zintzilikarietan ere argazki koloreztatuak ageri direla, miniatura-irudiak imitatuz. Azpimarratu behar da, orobat, argazkiak koloreztatzea ez zela kolorea emateko ekintza hutsa. Herrialde eta garaien arabera aldatzen zen. Argazki argiak nahi baziren, kontraste gabeak eta tonu grisduak gomendatzen zituzten egileek. Kolore gardenak lortu nahi baziren, hobeak ziren tonu marroia edo morea zuten kopiak. Koloreak aplikatzeko zenbait teknika erabiltzen ziren: ur-kolore bidez, puntaketa edo marraketaren bidez, itzaleztatzearen bidez, aerografo bidez, eta abar. Behin koloreztatzea burutu eta gero, askok babes-geruza beharrezko ikusten zuten. Ondorio orokor bezala adieraz dezagun, koloreztatzeak irudi xumea maila altuago batera pasatzen du, nahiz eta koloreztatze-ekintza bera erabat traketsa izan daitekeen. Kontserbazioaren ikuspegitik so, kolorearen presentziak zaildu baino ez du egiten argazki-ondarearen zaintzea.

«Sailkapen-analisia aldagai hertsia eta irekia batera tratatuz. «EHUdenda» inkesta euskaraz erantzun zutenen kasua» artikulua, estatistika esploratzaile anizkoitzaren aplikazio aurreratu bat aurkeztera dator. 2006ko abenduaren 20an, Euskal Herriko Unibertsitatearen *Uniberts-EHU Denda* zabaltzean bi inkesta antolatu zituen artikulugileak dendaren bidegarritasunaren proiektua definitzeko asmoz. EHUko ikasle, irakasle eta administrazioko langileen unibertsoa ezagutzeko izan zen lehena, eta web gunean egin zen *On-line* inkesta izan zen bigarrena. *On-line* inkesta bereziki aberatsa izan zen. Aldagaien izaeraren arabera, aldagai-multzo bakoitzari faktore-analisi mota berezia aplikatu zaio. Aldagai kuantitatiboak eta kualitatiboak edo kategorialak bereizi dira. Gainera, taulak batera hartuz eta aldagai-multzo horien garrantziaren berdinketarako konpromisorik hoberena lortuz

faktore orokorrak ateratzen ditu Faktore Analisi Anizkoitza (FAA) estatistika-metodoak. Saillkapen-analisia egin aurretik analisi faktorialak egingo dira, horien bidez agertzen diren egiturak aztertuko dira, eta datuetan dagoen informazio nagusia lehen faktoreak interpretatzean lortuko da. 2.289 ikasle, 768 administrazio eta zerbitzuko langile eta 1.499 irakasle pertsonalki *On-line* inkestaren proiektuan parte hartzera gonbidatuak izan ziren. Lortu ziren erantzunak % 23,9; % 57,81; % 50,30 izan ziren inkestaturiko sail bakoitzeko. Azalpen testualak 1.553 erantzun izan zituen guztira eta horietarik 304 soilik euskaraz. Emaizten orduan, lehen pausoa testu-corpora finkatzea da, lexiko-unitateak beren maiztasunekin egitarau egoki baten bidez finkatuz. Testu-corpora finkatu eta gero, maiztasun-taula lexikala behar da. Analisi testualaren kasuan corpusak minimo batzuk betetzea komeni da eta lanean ozta-ozta bete zirela esaten zaigu. Tematizazioa egin ondoren, lau bider edo gehiago errepikatzen diren 223 forma grafiko eta segmenturekin geratu da. Korrespondentzi Analisi Faktorialaren propietate garrantzitsu bat hau da: plano faktorialetan proiektatutako elementuak, aktiboak zein gehigarrizkoak, aukeratu dituzten bana-koak inkestaren grabitate-zentroan kokatu direla. Bestalde, analisiak aldagai-multzoz (edo taula) bakoitzari dagokiona analizatu ondoren, taulak batera hartuta faktore orokorrak ateratzen ditu. Aldagai hertsia kategorientzat, eta irekia kontingentzientzat. Lehenak jasotzen duen inertiaren balioa % 54,69 denean, bigarrenaren kasuan % 45,31 da. Gainera Faktore Analisi Anizkoitzaren lehen bost faktoreak aldagai berritza hartuta, saillkapen hierarkikoa egin da eta mozketak egokia kontuan hartuta lau sail lortu dira. Inkestatuen ehunekoak berdintsuak dira lau sailetan. Lehen sailean, hiztegi eta esaldiak begiratzean, unibertsitatearen indartzeaz eta bere irudiaz arduratzen direla argi dago. Bigarren sailean, euskal unibertsitate publikoa, bertakoa, erakunde kultural nagusia dela azaltzen dute eta horretaz harro sentitzeaz nabarmentzen dira. Hirugarren sailean, logotipodun produktuak ez dituzte gogokoak eta ez zaizkie gustatzen, ez zaie gustatzen propagandarik eramatea bera ere. Laugarren sailean, erostearen kontra agertzen direnak nagusi agertzen zaizkigu.

«Euskal Herriko Konfederaziorantz» artikulua, euskal nazio-mugimenduaren zatitza helburu taktiko berri bat proposatzera dator. Euskal Herri osorako, nahiz eta barnerako, taktika mailan eta epe ertainean, Baskongadetarako, Nafarroa Garaierako eta Iparralderako, konfederazio moduko antolaketa bat gomendatzen baita. Hala ere, ez dago ez bairik helburu estrategikoa independentzia dela eta autode-terminazioaren bidez lortu behar dela. Egoera desberdinetatik abiatuko garelarik, epe ertainera, Udabiltza bezalako gainerakunde operatibo bat prestatzea eta antolatzea, menian bageunde, ez litzatekeela zaila uste da. Ekonomian subiranotasun monetarioa lortuz gero, langabeziarekin, inflazioarekin, kanpo-zorrarekin eta kapital finantzarioaren espekulazioarekin amaitu daitekeela ere adierazten da. Horretarako, ohiko politikaz harago joan beharra seinalatzen da. Ohiko alderdi politikoak paranoiko bihurtu direlako, korporatibismoari atxikiz, borroka berriak oraindik bideratu nahiz, kudeatze hori gatazkan dauden mugimenduen barreneko arazoa dela konturatu gabe. Aldiz, Spinoza zaharrarekin esan beharra dago, espazio-denbora berriak sorraraztea etengabeko gatazka dela. Azken bi hamarkadetan erresistentzia-espazio gisa singularitasun kolektiboak agertu baitira, eta kolektibo bakoitzak bere etika motari atxikitzen baitio. Desio eta nahi berrien gauzatzeak lekuz kanpo utzi baititu lehengo kontzeptu eta eskema guztiak. Bukatu gabeko konstituzio edo eraikitze materialean finka daitekeen demokrazia berri moduan,

Euskal Herri berria konfederazioaren bidez eraiki daiteke. Giltza, multizentralismo funtzional bat eraikitzean legoke. Ondoren autodeterminazio eskubideaz mintzatu da. Gros Espiell-en definizioa bere eginaz, Euskal Herri osoari eta ez beste ezein zatikiri dagokiola autodeterminatzea azpimarratu da. Oso garbi dago, bada, estatutuak pluralean aipatu beharko direla. Egungo egoeratik abiatzeko hiru erakunde desberdin kontuan hartu beharko direla ere ondorio bat da: Euskal Autonomia Erkidegoa (Gernikako Estatutua), Nafarroa (Foru Hobekuntza) eta Iparraldea (oraingoz Departamenduaren bila), alegia. Abiadan sartzean, maila estrategikoan argi dauden zenbat puntu adieraziz honako hau izendatzen da: politikaren alorrean Europar egun edozein estatuk daukan maila politiko berbera behar dugula. Bestalde, konfederazioaren kontzeptua garbi edukiz, politika mailan taktika bereziak erabil daitezkeela Euskal Herriaren «bateratasuna» lortzeko orduan. Hain galdegina den parte-hartzea konfederazioaren bidez gauza baitaiteke. Diskurtso berria ez da aski, aldi berean praktika politiko berria beharrezkoa baita. Informazioaren gizartean bizi garenez, telepolisa deslurraldetutako hiria dugu, muga geografiko-politikoaren gainetik eratzen dena, alegia. Historia ere aipagai da. Historiak ez gaitu askatuko. Historiak, ordea, itsutu gintzake. Arazoa ez da euskal estatu historiko horri etorkizunean nola deitu behar diogun, ezpada horretara nola irits gintezkeen. Egungo gizartea baita egoeraren erabakitzailea, ez orain dela mila urtekoa. Euskal Herrian intsumisio zibila martxan dagoela gogorarazten da. Epe laburrerako proposatzen diren ildoak: autodeterminaziorantz abiatzea; sindikal-gintzan LABek eta ELAk 1995ean hasitako ildoari jarraitzea; subiranotasun ekonomiko eta monetarioa lortzeko bankugintzak daukan garrantzia onartzea. Gogoan ukan behar da ere, lan-indarra, zentzu zabalean, ondasun guztien iturria dela. Arazo ekonomikoak ez dira estaltzen. Europar Batasunaren eurogunean itsatsirik gaude. Inongo eztabaidarik gabe sartu gintuzten, beste inposizio historiko bat jasanez herri bezala. Nazioarteko kapital espekulatzaila aztertzen da. Monetak truke-objektuetan aldatuak diren bezain laster, haien truke-tasak beraien erosketen eta salmenten arabera aldatzen dira, eta espekulazioa aldaketa horietarik kapital-irabaziak lortu nahian sortzen da. Schmith ekonomialari frantsesaren esaldi bat bere egiten du: herrialde zordunek, beren kanpo-zorra dela eta, zorraren interes netoaren kopurua birritan ordaintzen dutela. Europar Batasunak euroa sortuz egonkortasun monetarioa lortu nahi izan zuen. Baina subiranotasun monetarioari uko egitearen efektu negatiboak truke-tasak deuseztatzearen abantailak baino txikiagoak dira batetik, eta bestetik, truke-tasaren egonkortasuna ezin da lortu nazioek beren moneta nazionalak erabiltzeari uko egiten ez badiote. Subiranotasun monetarioak muga nazionalen barruan kapitala libreki mugitzea ahalbidetzen du, baina galarazten dio herrialde batetik bestera «ihes egitea». Orduan, litekeena ote da inongo zentimok ezin duela bera sortua den banku-sistematik alde egin? Estatuarentzat galduak, kapital horiek oraingoz eskuragarri daude banku-sistema nazionalaren barruan. Bi arazo ekonomikok irauten dute estatuen barnean: inflazioak eta langabeziak. Presio inflazilogileek produkzio-prozesuan daukate beren jatorria, ez horrela jadanik produzituriko ondasunen zirkulazioan. Bankuek gordailuen jabeen beren bezeroek beraiei zor dieten kopuru berbera zor diete. Esaten da, orobat, kapital zirkulatzaila ezin interpreta daitekeela ikuspuntu mikroekonomikoetan. Ordainketa-sisteman diruaren, errentaren eta kapitalaren izaerarekin ados egoteko, bankuetan hiru departamentu bereizi behar dira fluxu monetarioak, finantzarioak eta kapital-fluxuak kontuan edukiz. Euskal Herriko ekonomian kanpoko

eraginak bezala barrenekoak ere kontuan ukan behar dira. Langabezia eskariaren eskasiarekin dago loturik. Hori erremediatzeko estatuaren parte-hartzea martxan jarri zenean, inflazioa agertu zen. Horrela stagflazioarekin aurkitu ginen: langabeziaren eta inflazioaren presentzia gurutzatuarekin, alegia. Gaurko bankugintzaren jardueraren arabera, posibleak (nola birbanatuak hala inbertituak) kontabilitate-departamentu soil bakar batean sartzen dira. Horrela, diru-errentaren eraketa eta kapitalaren eraketa nahasten dira. Euskal langileriak eginkizun eta betebeharrak batzuk dauzka. Hasteko, argi eta garbi esan behar da ekonomialari gehienek kontra bada ere, langileen alokairuek ez dutela inolako inflaziorik sortzen. Soldapekoek, eta beraz, sindikalgiaren berriaren aldekoek, kapital finkoaren sortzeaz eta amortizazioaz arduratu behar dute. Horretarako, langileriak erreminta kontzeptual berriak behar ditu zeren monetaren arazoak ikertu beharko baititu. Sokal eta Bricmont autoreen liburu berri bati jarraiki haxe dio: ezin ezker mugimendu ezin dela eraginkorra izan gertakari zientifikoei, balio etikoei eta interes ekonomikoei dagozkien arazoak seriooki aintzakotzat hartzen ez baditu.

«Debarreneko euskarazko komunikazio-sistema. Tokian tokiko aldizkarien kazetaritza-genero eta gaien analisia 2000-2004 bitartean» artikulua, 2000-2004 bitartean bailara horretan euskaraz argitaratzen diren 6 herri-aldizkarien kazetaritza-genero eta gaien analisia egiten du. Gipuzkoako Debarrena eskualdea 9 herri osatzen dute. 1980ko hamarkadan Euskal Herrian herri-aldizkarien urrezko aroa hasi zen. 2000. urtean Debagoiengan, Goiena talde multimedia sortuz, beste urrats bat egin zen euskarazko herri-komunikabideen arloan. Baina, multimedia-proiektuen zabalkundea ez da izan herri-aldizkarien parekoa. Ikerketak helburu bat zuen: aditzera ematea Debarreneko sei herri-aldizkarien ezaugarriak zeintzuk diren, zer duten komunean eta zerk ezberdintzen dituen batzuk besteengandik. Espektroa zabala eta plurala denez, maiztasunez, tiradez, lan-taldeengituraz eta antolaketaz dihardu. Ikertzailea bera mundu horretan esperientziaduna da: Mallabiko *Drogeteniturri* hilabetekarian koordinatzaile eta publizitate-arduradun jarduna da. Jarraituriko ikerketa-eredua kuantitatiboa eta kualitatiboa gurutzatzea izan da aldi berean. Kualitatiboan sakoneko bost elkarrizketa egin ziren. Kuantitatiboan, eduki-analisia erabili zen. Komunikabideen mezuak aztertzen dira. Orotara, 2000-2004 bitartean, tokian tokiko euskarazko prentsak kaleratu zituen 566 zenbakietatik gure azterketa-lagina 318 aldizkarik osatu dute. Informazio-testuak, iritzi-testuak, eta testuen lagungarri diren irudi, grafiko eta argazkiak ere kontuan hartu izan dira. Analisi-unitate bakoitzaren kodeketa, kazetaritza-genero eta gaiak definitzen dituen kategoria-sistemaren arabera egin da. Fidagarritasuna frogatzeko ikasketa pilotu bat egin da, kodelari independenteekin. Helburuak kontuan, hiru zutabe nagusitan egitaratu dira honako hipotesi eta lan-galdera hauek: Debarreneko komunikazio-sistemaren ezaugarriak; epe laburreko erronkak, eta etorkizunaren diseinua. Ondorioak lau ezaugarritan azaleratu dira: 1) Sei aldizkarietan informazioa da genero izarra. 2) Zerbitzu-gunea aldizkari guztietan ageri da. 3) Iritzia hirugarren generorik garrantzikoena da. 4) Literatura eta komikiaren agerpena hutsala da aldizkari guztietan. Gaietara igarotzen bagara, honako hau daukagu: grafikoari so, gizarte-gaiak jorratzen dira gehien. Kultura da bigarren blokerik garrantzitsuena. Kirola da hirugarrena. Politika eta ekonomia dira gutxien aipatzen direnak sei aldizkarietan. Gaitegiaren erradiografia horrek herriarren eguneroko bizitza kontuan hartzen dutela erakusten du. Sei aldizkarietan

euskara batua da nagusi salbuespenik gabe. Herriko hizkera sail zehatz batzuetan agertzen da. Euskalkiei dagokienez, aldizkari bakoitzak bere ereduari jarraitzen dio. Eibarko *Eta kitto!* da bertako hizkera gehien erabiltzen duena. Norberaren herriko hizkuntzak herrikoiago bihurtzen du argitalpena. Gertutasuna lortzen du irakurlearekin. Aldizkarien lan-taldeak hiru eratakoak agertu zaizkigu: profesionalak; erdi profesionalak; langile profesionalik gabe funtzionatzen dutenak. Kazetari profesionalak ari direnetan kazetaritza-generoak ikuspegi profesionaletik lantzen dira eta akademikoki ondo erabiltzen dira. Epe laburreko erronkak dira, alde batetik, zenbait aldizkaritan dagoen militantzia gainditu beharra. Kolaboratzaile berriak aurkitzeko zailtasunak dituzte. Bestalde, informazio lokalera gaztelaniazko prentsa sartzen hasia dago. Edukien kalitatea goratu beharra dago, beraz. Debabarreneko udalek aldizkari horiei ematen dizkieten diru-laguntzetan ez dituzte aintzakotzat hartzen kazetari langileak. Lan-baldintza duinak bermatzea ezinbestekoa gertatuko da, zeren langileen ezegonkortasunak ez baitie sendotzen eta finkatzen uzten aldizkari-proiektu horiei. Baldintza horietara ailegatzeko asko falta da oraino. Egitura zenbat eta profesionalagoa ukan, orduan eta egokiera ahal handiagoak erakusten dituzte eta alderantziz ere. Eguneroko jarduera hain itogarria da non ez baitute denborarik etorkizuna diseinatzen jarduteko. Diru faltak mendekotasuna ere agertzen du. Berehala, etorkizunean Debabarreneko komunikazio-sistemak berrantolaketaren beharra dauka. Urrats bat izan liteke 2003an hasitako egitasmo multimedia garatzea. Gogoratu behar dugu, orobat, 2004ko datuek erakusten dutenez, Debabarreneko eskualdean astekari bat osatzeko ezaugarriak eta baldintzak betetzen direla. Orotara, hemeretzi langile profesional eta hamar boluntario zeuden; 555.000 euro mugitzen zituzten, eta 25.100 irakurleri daude zuzenduak.

«Ekofeminismoa, garatzeke dagoen teoria. Ingurune-feminismoaren gatazken hastapenak» artikulua, feminismitik sortutako adar berri horren izate-arrazoi nagusiak, korronteak eta irakurketa ezagunenak aipatzera dator. Garapen desegokiak emakumeen eta naturaren kontrako egiturak eraiki ditu, eta horiek biak elkarrekin bide egokira ekartzeko daude ekofeministak lanean. Munduari bira eman nahi dioten bi mugimendu sozial berri garrantzitsuenak harremanetan nahi dituzte bakar batean lotu. Françoise d'Eaubonne-k 1980an sortutako kontzeptua dugu ekofeminismoa. Amherst-en 1980ko martxoan izandako lehen konferentzia ekofeministaren deialdiari esker martxan jarri zen. Berehala korronte hori mundu anglosaxoira igaro zen. Mugimenduaren ildo nagusia emakumeak naturarekin dauzkan loturak eta harremanak azaltzearekin arduratzen da. Ekofeminismoak, azken finean, gizarte-mugimendu anitzen gogoetak daramatza barrenean: bakezalea, antimilitarista eta, bereziki feminista eta ekologista baita, alegia. Oro har, emakumeak naturarekiko duen harremanaren izaera berezian kokatzen saiatzen den korronte teorikoa da. Emakumeak bizitzarekin duen lotura berezia aztertzea du ardura ingurune-feminismoak. Emakumeak beste edozein gizakik baino interes handiagoa baitu naturaren askapenean. Ekofeminismoa lantzen hasi berri den corpus teorikoa prebentziozko negoziaketa gisa planteatzen baitu feminismoak ekologismoarekiko lotura. Alderdi zein antolakuntza-eredu ekologistetan, beste antzeko egitura sozialetan ohi denez, antolakuntza-eredu patriarkalaren eraginak handiak dira. Bestalde, feminismoak bere izate-nahi internazionalista mantendu nahi badu, ezinezko du berba ekologistak ez baliatzea, Hirugarren Munduko emakumeak baitira ingurumenaren zanpaketa lehenik pairatzen dutenak. Hala ere, ez dago ekofeminismo bat bakarrik. Oro har, emakumeek patriarkalismoak garatu



dituen tresnak eta ideiak despatriarkalizatu nahi dituzte. Ekofeminismoa, sorreran, osasunarekin loturik agertu zen, emakumea eta bere gorputzarekiko harremanaren eta gizakiok ingurumenarekin dugun harremanaren arteko paralelismoa sortuz. Parametro ekonomizista hutsetan sortutako eredu hipergaratuak ez du ekonomia eta naturaren jasangarritasuna kontuan hartzen. Hortik etorriko da garapen jasangarri edo iraunkorraren asmakizuna. Urrats bat eginez, generoa eta jasangarritasuna elkartu dira. Iraunkortasun edo jasangarritasuna hausnartzeko bidean, berriz, ekologiarene bost legetan oinarritu behar da: arreta-printzipioan; interdependentzia-printzipioan; eraginkortasun- eta neurritasun-printzipioan; osotasun-printzipioan, eta oreka dinamikoaren printzipioan. Azken printzipiotik ekitatearen beharra jaurtitzen da. Izan ere, ekitate faltak «giza jasangarritasun» gabeziara eramán baikaitzake. Ondorioz esaten zaigu, generoen arteko ekitatea mantentzea ezinbestekoa dela munduaren garapen jasangarria gerta dadin. Aberastasunaren eta txirotasunaren arteko desberdintasunak areagotzen dituen globalizazio-prozesuak ere emakumeen kontrako desberdintasuna eragiten du. Ez behar naturalen aitzinean emakumeak aurre egiteko gaitasun gutxiago du; izan ere, horrelakoetan gizonak emigratzera ohituta daudenean, emakumeak haurrak eta zaharrak zaindu behar baititu. Hala ere, ekofeminismoak azpimarratzen duenez, ez da bakarrik naturarekiko borroka, aldi berean beharrezkoa da ere emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanetan ekitate-printzipioa aplikatzea. Ekofeminismoak gizakia, emakume eta gizonetan banatzen du, eta horien artean dauden diferentziak desagerarraztea ingurumenarekiko harreman adeitsuarekin bateratuz aldarrikatzen du. Emakumeek eta gizonak ez dute ingurumenarekiko oharren bera, gizonak afera ekonomikoetatik hurbil izanik, hots, bizitza publikora so, ingurumenarekiko beste ikuspegi bat dute. Ekofeminismoak, bada, emakumeak historian izandako rol sozialetik abiatu ingurumenerako eta jasangarritasunerako hurbilketa birformulatu nahi du. Ekofeminismoak korronteak ditu, beste hainbat mugimenduk bezala. Ekofeminismo esentzialista, emakumearen eta naturaren arteko enpatia biologikoan oinarritzen da. Natura emakumearekin eta kultura gizonarekin lotzen dira. Laurogeiko hamarkadan ekofeminismo esentzialistaren birmoldaketa abiatu zen. V. Shiva emakume indiarra izan da eragile nagusia. Esentzialismoak elementu erlijioso sinbolikoetatik alde egiten du eta espiritualismo-dimentsio bat proposatzen du. Espiritualismo hori emetasun-printzipioari erreferentzia egitean datza. Ginekologia eta medikuntza alternatiboen bila arituko da. Bestalde, ekofeminista konstrutibistak daude. Emakumeak historian zehar etxeko-ekonomiarekin izan duen harremanaren bitartez agertzen dute emakumea-natura harremana. Derrida frantziar filosofoak paratu duen dekonstrutibismoaren ideia ere garatu da. Natura-kultura; emakumea-gizona; gorputza-garuna kontzeptuen bidez birdefinitzearen alde agertzen dira. Ekofeminismoan aldagai berriak sartzea posible egiten da. Ekonomiaren alorrean sortu zen Prebischen zentro-periferia mundu-banaketa ere interesgarria gertatzen da. Hegoaldeko ekofeministek, espiritualistek gehienbat, emakumeak naturarekiko duen lotura espirituala azpimarratuz irakurketa estrukturalista egiten dute aldi berean. Iparraldeko ekofeministek, berriz, planteamendu ideologikoetan inzititzen dute bereziki. Ez da mundu-mailako ekofeministen elkatasun-saririk existitzen. Argiak eta itzalak aipatzean, hau esaten da: feminismo klasikoak sexuen arteko berdintasun-aldarrikapenak alboratzea dakarrenean, ekofeminismo esentzialak ciber-emakume postmodernoari era naturalean egotzi dion Ama Iraunkor eta betierekoaren alternatiba bera ere ez da generoen arteko berdintasunaren

aldeko jokabidea. Teoria konstrutibistak, aldiz, mistizismo anakroniko horretatik alde egiten duen heinean, emakumearen eta gizonaren androzentrismoaren irudia dakar. Emakumeak eta gizonak, bata bestearen alboan, jardutea dela helburua ez da ahanzi behar. Utopiarekin, hala ere, topaleku berria sortu du ekofeminismoak. Argi dago erlatibismo postmodernotik urrun dauden ekarpenak egin dituela ekofeminismoak